



**Arartekoaren 2018-715-17 Ebazpena, 2018ko uztailaren 26koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzeko eskubidea eteten duen ebazpena berrikusteko eta, berrikuspen horren arabera, frogaldi bat irekitzea erabaki dezan, zehazki, alokairu-ordainagiriak ordaindu ote diren eta bertan estanpatutako sinadurak pertsona berberak egin zituen argitzeko.**

...

### Aurrekariak

Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez baitzegoen ados Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidearen **etenaldia** ezartzeko emandako ebazpenarekin, ezta Lanbidek **bidegabeki jasotako zenbatekoak erreklamatu izanarekin** ere, arrazoi berberengatik eta 1500 euroan.

Kexaren sustatzaileak 2017ko urtarrilaren 16an jaso zuen Lanbideren jakinarazpena (2017/REV/003888); bertan, adierazten zitzaion **betekizun edota betebeharren bat betetzen ez** zela antzeman zela, hain zuzen ere, arrazoi honengatik: *"Iruzurrezko jokaerak"*, zehazki:

*-“Se han presentado el 02/01/2017 unos justificantes de pago del alquiler con una firma falsificada. En el contrato de alquiler, el de subarriendo y en el recibo de agosto 2016 que se presentó hay una firma. En los presentados ahora: agosto 2016 (uno nuevo con otra firma), septiembre 2016, noviembre 2016, diciembre 2016 y enero 2017 hay otra firma de cobrador. El de octubre 2016 se presenta sin firma”.*

Lanbideren jakinarazpen hori jaso ostean, kexagileak **alegazioak aurkeztu zituen**, dokumentazioarekin batera, **2017-02-02an** (Lanbideren ziurtagiri-zenbakia: 2017/36654); besteak beste, etxebizitzaren azpierrentatzailearen idazkia aurkeztu zuen, **non alokairu-ordainagiritako eta aurkeztutako kontratuetako bi sinaduren egiazkotasuna berresten zuen. Izan ere, argitu zuen ohikoa dela berarentzat bi modu desberdinetan sinatzea.**

Halaber, 2017-02-07an, kexagileak **dokumentazio osagarria** aurkeztu zuen (ziurtagiri-zenbakia: 2017/42223), besteak beste, hauxe: etxebizitza-aldaketaren jakinarazpena; errolda-ziurtagiria; aurreko erroldaren baja; berrakura-kontratua; otsaileko ordainagiria eta berrakurarako baimena.

Hala eta guztiz ere, aurkeztutako **alegazioak ezetsi** ostean, 2017ko otsailaren 18an, **prestazioen aldi baterako etenaldia** ebatzi zuen (2017/REV/003888) arrazoi hauengatik:





*-“Iruzurrezko jokaerak: azpiarrendamendu ordainagiriak sinadura faltsuekin aurkeztea. 2016ko abuztutik 2017 urtarrilerartekoak.”*

Horrez gain, data berean, Lanbidek jakinarazi zion **bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko erreklamazio-prozedura bat abiarazi zela**, zehazki, 1.500 euroan eta aldi baterako etenaldiaren motibazio berberarekin (2017/REI/008732).

Kexaren sustatzaileak ebazpen horrekin ados ez zegoela erakutsi zuen eta **aukerako berraztertze-errekurtso** bat aurkeztu zuen Lanbideren aurka, bai **2017ko martxoaren 14ko** aldi baterako etenaldiaren aurka (ziurtagiri-zenbakia: 2017/86533), bai bidegabeki jasotako zenbatekoen erreklamazioaren aurka (ziurtagiri-zenbakia: 2017/87259).

Horrela, kexagileak adierazi zuen ez zegoela ados Lanbidek *iruzurrezko jokaera* bezala sailkatutako kexagilearen jokabidearekin, organismo publiko horren arabera, etxebizitzaren alokairuaren ordainagirien aurkezpenean oinarrituz. Izan ere, Lanbidek *azpierreantatzailearen faltsututako sinadura* gisa sailkatzen du egitate hori.

Hala eta guztiz ere, kexagileak adierazi egin du ez duela ezer faltsutu eta pisuaren azpierreantatzaileak ordainagiriak modu desberdinean sinatu besterik ez zuela egin, azpierreantatzaileak Lanbideren aurrean idatziz berretsi egin duen bezala prestazioak eteteko prozedura hastean. Kontu hori kexaren sustatzailearen kontroletik eta irismenetik kanpo dago. Izan ere, pertsona horrek baieztatu egin zuen alderdi hori; zehazki, idazki bat sinatu zuen Lanbiderentzat eta kexaren sustatzaileak hori aurkeztu zuen alegazioekin batera 2017-02-02an, prozeduraren hasieraren osteko entzunaldi-izapidetan (ziurtagiri-zenbakia: 2017/36654). Horretan, azpierreantatzaileak berresten zuen Lanbidek faltsututako agiritzat jotako ordainagiri horiek ez zeudela faltsututa, bere sinadura zelako aurkeztutako dokumentazioan agertzen zena.

Era berean, 2017ko martxoaren 15ean, kexagileak **kexa bat aurkeztu zuen Arartekoaren aurrean**. Kexa izapidetzea onartu ostean eta, azaldutakoaren arabera, erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari **eskatu zion** aurreko egitateei buruzko informazioa.

Lankidetzeta-eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak **txosten bat igorri** zuen; horren bidez, egindako gogoetak aintzat hartuta, zenbatekoak itzultzeko beharra adierazi izana honako argudio hauekin arrazoitu zuen:

*-“LANBIDEK aztergai dugun prestazioaren BERRIKUSKETA abian jarri zuen 2017ko urtarrilaren 16an, jabetu baitzen erreklamaziogileak aurkeztutako azpierreantaren ordainagirietan, 2016ko abuztutik 2017ko urtarrilera artekoetan, ageri zen sinadura erabat desberdina dela LANBIDEK aurrez dituen dokumentuetan (errenta eta azpierreantak-kontratuak, etab.) ageri denarekin alderatzen bada.*



*-DSBE/EPO prestazioen jasotzaileen ardura da LANBIDEREN aurrean aurkezten duten dokumentazioaren legezkotasuna, egiazkotasuna eta koherentzia. Zentzu horretan, uste dugu ez dela zalantzarik izan behar ordainketak jaso eta justifikatzen dituen pertsonaren nortasunari dagokionez. Banku-transferentzia izendunik ez dagoenez, sinadurak erkatzea da nortasuna egiaztatzeko LANBIDEK duen aukera bakarra.*

*-2017ko urtarrilaren 16an entzunaldi-izapide bat egin zen, 2017ko urtarrilaren 30ean jakinarazi zitzaiona erreklamaziogileari, eta hautemandako balizko irregulartasunak adierazi zitzaizkion. Erreklamaziogileak aurkeztutako dokumentazioak ez du aldatzen etete-proposamenean jasotakoa, izan ere:*

*-/ Aurkeztutako idazkian "Sinaduren egiazkotasuna pertsona horrek (azpierrezentzaileak) berretsia izan da, Lanbiden aurkeztu duen idazkian adierazten baitu, hain zuzen, Lanbidek faltsutzat jotako ordainagiriak egiazkoak direla eta haietan ageri den sinadura berea dela" adierazten zuen arren, idazkia erreklamaziogileak berak aurkeztu zuen, ez azpierrezentzaileak, eta, gainera, ez zenez erakunde edo agintaritzaren batek bisatutakoa edo konpultsatutakoa, ezin izan zen bermatu idatzi horren egilea esaten duen pertsona dela.*

*-/ Esanguratsua da, halaber, dokumentu hori LANBIDEN aurkeztu eta hiru egunera erreklamaziogileak erreferentziazko helbidea utzi izana, han sei hilabete besterik ez zeraman arren".*

**Erakunde honek jakin izan du Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren ordainketa berrabiarazi egin ziola kexagileari 2017ko apirilaren 21ean, arrazoi honengatik: "prestaziora sarrera edukitzeko betekizunen berreskuratzea" 2017ko martxoaren 3tik 2017ko apirilaren 30era bitarteko atzerapenen ordainketarekin.**

Hala ere, urtarrilaren 24ko ebazpenaren bidez (201/REC/000399), Lanbidek kexagileak aurkeztutako **errekurtsoa ezetsi zuen**, hain zuzen ere, honengatik:

*- " TERCERO.- Visto el recurso presentado y la documentación obrante en el expediente se constata que independientemente de que la firma que consta en los recibos de alquiler sea falsificada o no, los recibos aportados **no justifican debidamente, el gasto ocasionado por el subarriendo de la vivienda, y no cumplen los requisitos exigidos por la legislación aplicable***

*El marco legal aplicable, está constituido por la Ley 18/2008 de 23 de diciembre y por los decretos de desarrollo de esta ley, en concreto el Decreto 2/2010, de 12 de enero, de la prestación complementaria de vivienda y Decreto 147/2010, de 25 de mayo, de la Renta de Garantía de Ingresos. El artículo 19 del decreto 2/2010 de 12 de enero dice lo siguiente, sobre la justificación de los gastos realizados.*

*"2.- Los justificantes de realización de los gastos deberán incluir los datos básicos de identificación y localización de la persona física o jurídica emisora, incluido su número de identificación fiscal (NIF) o número de documento nacional de identidad (DNI), el concepto de gasto y la cuantía correspondiente a los mismos".*

Bai prestazioak aldi baterako eteteko ebazpenean (2017/REV/003888), bai bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasteko ebazpenean (2017/REI/008732),), motibazio gisa, hauxe besterik ez da aipatzen: *"Iruzurrezko jokaerak: azpiarrendamendu ordainagiriak sinadura faltsuekin aurkeztea"*, Ez da bestelako arrazoirik aipatzen ebazpen horiek justifikatzeko, kexagileak aurkeztutako errekurtsua ezesteko emandako erantzunean geroago jasotakoaz gain:

**"no justifican debidamente, el gasto ocasionado por el subarriendo de la vivienda, y no cumplen los requisitos exigidos por la legislación aplicable."**

*3.- En el caso de los pagos no bancarios, los justificantes emitidos por personas físicas deberán contener la firma del recibí por parte de aquéllas y, en el caso de las personas jurídicas, deberá presentarse la factura que las mismas deban emitir conforme a la normativa que les sea de aplicación, en la que figure haber sido abonado el importe del alquiler.*

Aztertzen ari garen kasuan, egiaztatu egin da kexaren sustatzaileak **persona fisiko batek (azpierreantatzailea) igorritako ziurtagiriak aurkeztu zituela, jaso izanaren sinadura jaso** behar dutenak (Lanbideren aurrean idazki bidez berretsitakoa).

Kasu zehatz honetan, 2017ko urtarrilaren 16ko administrazio-egintza baten bidez, administrazioak entzunaldi-izapide bat egin zuen; horren bidez, titularrari jakinarazi zitzaion alokairua ordaindu izanaren ziurtagiriaren gaineko ez-betetze batzuk zeudela. Hain zuzen ere, entzunaldi-izapide hori 2017ko urtarrilaren 30ean jakinarazi zen. Orain errekurtsua aurkezten duenak, **ezarritako epearen barruan, idazki bat aurkeztu zuen; horren bidez, aurkeztutako ordainagiriaren baliozkotasuna justifikatzen saiatu zen. Hala ere, errealitatean, ez ditu aipatutako ordainagirik dituzten formako akats larriak behar bezala zuzendu.** Arrazoi hori dela-eta, administrazio honek 2017ko otsailaren 16an igorri zuen orain aurkatutako ebazpena; zehazki, horren bidez, prestazioa kobratzeko eskubidea eteten da.

-Kexagileari igorritako ebazpenetan, Lanbidek **ez du adierazten** dokumentu horietan **"formako akats larriak"** dagoenik eta, hala badagokio, horiek zuzentzeko epe zehatz bat daukanik.

*"CUARTO.- De las actuaciones del recurrente se deriva, una serie de **incumplimientos en las obligaciones establecidas** por la legislación mencionada, es por ello que en atención a los artículos 24 y siguientes del decreto 2/2010, la suspensión de la PCV operada es acorde a derecho, ya que este artículo citado, tiene el siguiente tenor literal:*

"2.- Además se suspenderá, aunque no exista suspensión de la Renta de Garantía de Ingresos, en los siguientes casos:

a) Cuando no se acrediten debidamente los gastos referidos a la vivienda o alojamiento habitual para cuya cobertura se solicita la Prestación Complementaria de Vivienda."

QUINTO.- Por el contrario, la resolución recurrida suspende también el derecho a la renta de garantía de ingresos, por exactos motivos. **Esta suspensión no debió efectuarse**, ya que el incumplimiento específico en este caso, únicamente puede tener como consecuencia la suspensión del derecho a la PCV. A este respecto debe añadirse que **una resolución posterior 2017/REV/024576, reanuda el derecho a la prestación de RGI, declarando además el derecho al cobro de atrasos por el mes indebidamente suspendido**". **Es por ello que de facto la administración ha dejado sin efecto, la suspensión operada sobre la prestación de RGI**, por lo que no cabe pronunciarse sobre este asunto, al haber corregido de oficio el error originado.

Por todo lo anteriormente expresado, y en atención a los preceptos ya citados en la resolución objeto de impugnación, así como a los mencionados anteriormente, deberá concluirse que **la resolución objeto de recurso se ajusta plenamente a la legalidad en lo referente a la Prestación Complementaria de Vivienda** y por tanto debe desestimarse el recurso."

2017ko abuztuaren 7ko ebazpenaren bidez (2017/REI/008732), Lanbidek kexagileak aurretik aipatutako 1.500. euroko zenbatekoa itzuli behar zuela adierazi zuen, arrazoi hau dela bide: "Iruzurrezko jokaerak: azpiarrendamendu ordainagiriak sinadura faltsuekin aurkeztea. 2016ko abuztutik 2017 urtarrilerartekoak" Hala, % 30eko likidazio-kuota ezarri zen, hilero bere nominatik konpentsatuko dena. Kexagileak ebazpen horren aurkako errekurtsua jarri zuen 2017ko irailaren 6an (ziurtagiri-zenbakia: 2017/288740) eta egun berean kexagileak beste kexa bat jarri zuen Arartekoaren aurrean ebazpen horren aurka (espediente: 2252/2017).

Beraz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

#### Gogoetak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9. artikulua **eskubidearen titulartasuna eskuratzeko betekizunak** arautzen ditu. Bestalde, Etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 5. artikulua "Eskubidearen titularrak", etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidearen titular izateko bete beharreko betekizunak arautzen ditu.

Halaber, 2/2020 Dekretuaren *Egindako gastuen justifikazioa* izeneko 19. artikulua etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaileen betebeharren artean ezartzen du honakoa:

*1.– Emate-ebazpenari dagokionez, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak sei hilean behin ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuen frogagiriak udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuari aurkeztu beharra ezarriko da. Frogagiri horiek ordainagiri pribatuak, fakturak, edo banku-ordainketako frogagiriak izan daitezke. Sei hilean behingo aldizkakotasun hori egoki jotzen den bezainbeste laburtu ahalko da mugikortasun handia ikusten den kasuetan, eskatzailearen ohiko bizileku aldatetekin.*

*2.– Gastuak egin izanaren frogagirik pertsona fisiko edo juridiko igorlearen identifikazioko eta lokalizazioko oinarrizko datuak, haren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo nortasun-agiri nazionala (NAN) baren, gastu-kontzeptua eta horiek dagokien zenbatekoa bildu beharko ditu.*

*3.– Banketxe bidez egiten ez diren ordainketen kasuan, pertsona fisikoen frogagirik haien sinadura izan beharko dute eta, pertsona juridikoen kasuan, aplikatu behar zaien arautegiaren arabera eman behar duten faktura, alokairuaren zenbatekoa ordaindu dela adierazten duena, aurkeztu beharko da”.*

Erakunde honen ustez, egiaztatu egin da kexagileak Lanbideren aurrean aurkeztu egin zituela, epe barruan eta forma egokian, etxebizitzaren alokairu-gastuen ziurtagiriak, aurreko lege-aurreikuspena betez. Halaber, uste du egiaztatu egin dela berak eta bizi den etxebizitzaren azpierrentatzaileak **justifikatu egin zutela** aurkeztutako alokairu-ordainagiritan egindako bi sinaduren arteko aldearen funtsa, zehazki, sinadura horien egilearen idatzizko adierazpenaren bidez.

Hortaz, aurrekoa gorabehera, sinaduren egiazkotasunaren gaineko zalantzak bazituzten, frogaldi berri bat eskatu behar zuten.

Hain zuzen ere, sinaduraren egiazkotasunari dagokionez, Auzitegi Gorenaren 2001eko uztailaren 17ko epaia aipatu behar dugu, hauxe adierazten duena: *“...la autenticidad hace referencia a la concordancia del autor aparente del documento con el autor real, y en el caso resulta incuestionable dicha concordancia (proveniencia de su autor), sin que obste que la adveración proceda de personas interesadas de una u otra manera en el pleito, porque lógicamente las firmas deben ser reconocidas principalmente por los que las estamparon”.*

Aztertzen ari garen kasuan, alokairu-ordainagiriak bi modu desberdinetan sinatu dituen azpierrentatzaileak sinaduren egiazkotasuna aitortu zuen eta hori adierazi zuen **Lanbideren aurrean aurkeztutako idazki baten bidez**. Horrenbestez, Arartekoaren ustez, egiazkotasunaren inguruko zalantzak bazituzten, **Lanbidek aukera zeukan bestelako egiaztapen-jarduketa batzuk burutzeko, behin Lanbideren**



**aurrean aurkeztuta azpierrentatzailearen bi sinaduren egiazkotasuna berresteko dokumentua, non bi era desberdinetan sinatu ohi zuela baieztatzen zuen.** Horrez gain, pertsonalki ager zitekeen idazkia berresteko edo salaketa penal bat aurkez zezakeen ustezko faltsutze delitu batean erori zela jotzen bazuen.

2. Bestalde, Lanbidek aldi baterako etenaldiaren eta bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko erreklamazioaren motibazioan **hitzez hitz aipatzen ditu iruzurrezko jarduketak** eta kexaren sustatzaileak alokairuaren ordainketa justifikatzeko aurkeztutako ordainagiritako *sinadura faltsuak*...

Arartekoak uste du berebizikoa dela Lanbidek betekizunak eta betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko burutzen duen eginkizuna. Baina eginkizun hori **administrazio-jarduketetarako aurreikusitako bermeak zorrotz betez** burutu behar da, batez ere, jarduketa horrek herritar bati aitortutako eskubide subjektibo bat mugatzea eragiten badu, kasu honetan bezalaxe. Lanbidek **zalantzak zituen alokairu-ordainagiriaren egiazkotasunaren inguruan** eta, horiek argitzeko, azpierrentatzailearen adierazpen bat aurkeztu zen horien egiazkotasuna ziurtatzeko. Hala, uste dugu egitate hori kontuan hartu behar zela, are gehiago, aintzat hartuta idazki hori erantsi zela sortutako zalantzak argitzeko egindako dokumentazio-errekerimendu bati erantzunez.

Hala ere, dokumentazio hori aurkeztu arren, diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea erabaki zen, **bestelako egiaztapen-jarduketarik burutu gabe edo salaketa penalik aurkeztu gabe, zehazki, sinaduraren egiazkotasuna zalantzan jartzen zelako.**

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 77. artikulua aurreikusten du frogaldi bat ireki daitekeela Lanbidek jotzen badu ez dela behar beste justifikatu aurkeztutako adierazpenaren edukia egiazkoa dela:

*“Administrazioak ez baditu egiazkotzat jotzen interesdunek alegatutako egitateak, edo prozeduraren izaerak hala eskatzen badu, prozeduraren instrukzio-egileak frogaldi bat hastea erabakiko du, gehienez hogeita hamar egunekoa eta gutxienez hamarrekkoa, egoki deritzon froga guztiak egin daitezten. Halaber, beharrezko irizten dionean, ezohiko frogaldi bat egitea erabaki dezake instrukzio-egileak, interesdunek eskaturik, gehienez ere beste hamar egunekoa”.*

**Lanbidek ez zuen frogaldi bat irekitzea erabaki,** kexagileak alegatutako egitateak benetakoak ziren ez jakin arren, hain zuzen ere, zalantzarriak ziren sinadurak pertsona berarenak izateari eta dokumentazio-errekerimenduari erantzutean horien egilearen adierazpena erantsi izanari dagokienez.

Arartekoaren aburuz, iruzurrezko ekintzen existentzian oinarritutako erabaki bat hartu aurretik, beharrezko egiaztapen-jarduketak burutu behar dira, zalantzarik gabe ondorioztatu ahal izateko iruzurraren existentzia.





3. Azkenik, **Lanbidek erakunde honi bidalitako txostenaren azken paragrafoari** dagokionez: , *“Esanguratsua da, halaber, dokumentu hori LANBIDEN aurkeztu eta hiru egunera erreklamaziogileak erreferentziazko helbidea utzi izana, han sei hilabete besterik ez zeraman arren”*erakunde hau ez dago ados interpretazio horrekin. Pertsona batek etxebizitzaz aldatzea erabakitzeak arrazoiak anitzak izan daitezke eta kausa desberdinek eragin dezakete aldaketa hori. Logelen azpierrentatzaileek askotan aldatu ohi dute etxebizitzaz bere gizarte-ahultasuneko egoerarekin lotutako arrazoiengatik; hortaz, etxebizitza-aldatzeak ez du zertan kausa-loturarik izan sinadura baten egiazkotasuna zalantzan jartzearekin. Aurretik adierazi den bezala, Lanbidek frogaldi bat ireki beharko zukeen aurkeztutako ordainagirien faltsutasuna egiaztatze aldera.

Alokairu-ordainagirietan estanpatutako sinadurak desberdinak direla jotzea balorazio subjektibo bat da eta, horretarako, egiaztapen bat egin behar zen eta frogaldi bat ireki ere bai, iruzurraren existentzia ondorioztatu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, erakunde honek uste du Lanbidek **ez dituela bete administrazio-prozedura batean eska daitezkeen bermeak**; beraz, etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea eteteko prozedura berrikusi behar du.

Hortaz, beharrezko egitate- eta zuzenbide-elementuak dauzkagula uste dugunez, honako hau iradoki nahi dugu:

### IRADOKIZUNA

Arartekoak Lanbideri iradokitzen dio Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzeko eskubidea eteten duen ebazpena berrikusteko eta, berrikuspen horren arabera, frogaldi bat irekitzea erabaki dezan, zehazki, alokairu-ordainagiriak ordaindu ote diren eta bertan estanpatutako sinadurak pertsona berberak egin zituen argitzeko.

